ZER
ALDIZKARIA
407n. zenbakia
2014 IRAILLA

Bizkaitarrei Bizkaieraz

www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Gabon-Subiletan

2013ko IPUIN LEIAKETA.

Indar Nuklearra,
Lemoniz eta Garoña

Euskerearen edestia

Euskalerrian euskeraz
EUSKERAZALEAK

2014-2015 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 47. IKASTAROA
IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak
Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 13an

47. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak
Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 13 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak
ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA
Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
Urrutizkina : 944 235 322
info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille
BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: IBEGRAFIK
www.ibegrafik.com



INDAR NUKLEARRA, LEMONIZ ETA GAROÑA

Plutonioa ez da Izadian. Gai bakun kaltegarriena dana. Pu 239´ez lerkai atomikoak egiten dabez. Lurrean orain dagona erreaktore nuklearretan pisifio zear, Uranio 238 aberastuta Uranio 235´z lortu da.

JORGE GARAY ZABALA



Pu 239 gramu milloiren bateko arnas artzea, kopuru gitxiago bat, alako eran zelula metabolismo nastauten da birika ta sur-eztarri bizienak sortzen dirala. (Park J. P.; Health Phisics 22: 1972gn. urtean, 303 orrialdea - Bair W, J. eta

Thomson R. C., Science 133, 1974, orr. 715 - Tamplin A. R. eta Cochran T. B., Radiation Standards for Hot Particles, Washington D. G., Natural Resources Defense Council NRDG,; 1974).

Plutonio 239´ko erradiaktibitate osoa 24.390 urtetako da. 112.320 urte gitxitzen 1%´ra beranduten da ta 168.840 urte 1/000´ra.

Isotopoak iraupen erradiaktibitate gitxiagokoa, baiña be oso kaltegarria.

Industria nuklearran jaurtiak, dira: Estroncio 90 (28´I urte), Cesio 137 (30 urte), Kripton 85 (I0´73 urte); Estroncio 90 azurretan tinkatzen da, leuzemiak eta bizienak sortuaz; Cesio 137 ura baño geiago arraiñetan 1000 bidar batzen da, janari katera igaroten dau, txegoskin bidera; odol eta giarretan erasoten dau; Kripton 85 arnas artzeko bidera igaroten dau.

Iraupen erradiaktibo gitxikoa dira Yodo 131 (8´06 egun), oso kaltegarria izan arren, tiroide guruiña erasoten dau; Sodio 24 (15 ordu); Argon 41 (1´83 ordu); Xenon 133 (5´29 egun); Cesio I44 (284 egun); Radon 222 (3´82 egun); Radio 224 (3´64 egun); Fosforo 32 (14´3 egun); Ytrio 91 (58´9 egun).

Iraupen erradiaktibo luzeluzekoa dira: Uranio 235 (713. 000.000 urte); Paladio 107 (6.500.000 urte); Zirconio 93 (1.530. 000 urte); Neptunio 237 (2.000.000 urte); Americio 243 (7.370 urte), aldi erradiaktibo gitxiagokoa baiña oso kaltegarria, azurretan batzen da ta bertan luzaro irauten da, azur zeluletako ondore gaira naasten da ta azurretako bizienaz eragiten da. E. a., e. a., e. a.

Ondakin erradiaktiboak ezin dira ezerestu ezergaitik. Konponketa baka-

rra (sasikonponketa) da beste tokietara eroatea: jaurti berun bidoietan ozeanoko sakonetara, gatz meatzetara, edo egin ondakin erradiaktiboetako obitegi bat batzeko. Au, erreaktoretik ataraten al diran ondakin erradiaktiboak -urtegi batean uraz dagozenak erreaktoreko euste eraikiñeko goiko zatian- baiña ondakin guztiak ezin dira atara erreaktoretik, ba euretako zati geldia ganbarako gaillu naastuetara itsatsitak dago: pisiño suilla, euste eraikiñeko barruko ormak, ingurubirako barruko oditeria, lurrun sorgailluak eta abar, eta euste eraikiñeko barruko utsean be, bertan ormak lodieraz ia bi neurkin ormigoi altzairudunez dira, barruko azala altzairu karbonoz lodiera zentimetro batzukaz. Eta erreaktoreko euste eraikiñeko betekizuna da erradiaziñoa pisiño nuklearrean sortua ez daiten urten kanpora.

Ta atarako al ba´lebez ondakin erradiaktiboak, erreaktore euste eraikiñetik, eroan bear dabez ondakin erradiaktiboetako obitegi batera, edo jaurti berun bidoietan ozeanoko sakonetara ta an bertan millaka urte iraungo dira, arriskatuak etorkizungo alanbearretara.

Konponketa, biar. Edonundik begiratuta, aukera nuklearra ez da artu ta aldeztu daitekena.

Erreaktore nuklear bateko erabilketea 30-40-30-60 urterako da, geiagorik ez. Gero bere gaillu naastuak zaarkitu ta balio eziñik geratuten dira. Noizean bein entzuten edo irakurten dogu nuklear-etxeren bat eraitsi dala. Ez dabe ondo aditzera emoten. Eraisten dabena turtukoi sorgailluetako eraikiña da, ozketa torrea, ingurugiroko ur argunea ta urtenbidea, baiña ez erreaktore euste eraikiña.

Ludian aldi batean 137 erreaktore itxita egon ziran, baiña jakin bear leike ziurtasun osoz, benetan eraitsiak dagozela. Aundienetako artean eraitsitako bat Yankee Rowe´ko, Massachusetts´en (USA) da, 185 Mw.o indarrez ezarritakoa. Itxi eben 1992´garrenean, eregita. 1960´garrenean eregin eta 1992´garrenean itxi eben.

Vandellos I´ko (Tarragona), erreaktore nuklearra, artekoa, 480 Mw.o, "latencia" (kanpora agertu barik) egoeran 2028gn. urte arte egongo da; orduan, agian, alegiñak egingo dabez eraisteko. Alan ba´litz, gatxa, bere ondar zeetuak, eroan bear izango dira Marcoule (Francia) tokira Ludi´ko erreaktore ondar zeetuak, eraitsi daitezen. (1989´garrenean itxi zan sute batez turtukoietako eraikin ondokoan, ondatu ta balio-eziña geratu zalako).

Zorita´koa (Guadalajara), 160 Mw.o, 1968´garrenean eregita, 2006´garrenean itxita. Bertakoak diñoe, eraitsi dagiela osoa. Erreaktore onetarako, diñoe, gai erradiaktiboetako 4000 tona baztertu daitezela, euren artean 100, millaka urtetakogoi erradiaktibitate ondakiñak.

Erreaktor aundi bat ezin da ataldu, desegin, edo eraitsi, ondakin erradiaktiboetako kopuru itzalez "blaitua" dagolako. Erabillita ta gero ormigoi altzairudunez mendi batean estaldu bear da, erradiaktibitatea ez daiten urten kanpora. Ta onelan mendetako igarotzea itxarotera.

Lerkai atomikoaz ilten dira notiñak, baiña lurraldea ez da ezin-bizi geratuten. Ondakin erradiaktibo jaurtiak erreaktore nuklear batez, ondamendiz gero, il ganera, lurraldea ezin-bizi geratuten da. Hiroshima´n eta Nagasaki´n bizi al zan an bertan, lerkaiak jausi ta gero. Ez ordea, Pripiat´en eta Chernobil´go erreaktore nuklearen 76 uri ta basauri albokoetan. Izenduten dabe Chernobil'´go nuklear-etxea". Uri au aundiena zan erreaktoretik urrean Pripiat eregi baño lenago; baiña benetan, uria jota geiago ez da Chernobil. Pripiaten barriz, baizik, 43.000 biztanle egozan ondamendia izan zanean eta gaur uri lagatu ta mamua da. Chernobil´en, erreaktoretik 14´5 kilometrotara, 1986´garrenean ondamendia jazo zanean, 14.000 biztanle egozan, 2010´garrenean 500 ziran. Uri iya mamu bat dala esan leike. Gai erradiaktibo jaurtiak Chernobil´go erreaktorez Hiroshima´ko lergaillu atomikoa baño 500 bidar ganekoz izan ziran. Il zioa, batez be, lergaillu atomiko batekoa, uin beroa da, erradiaktibitatea baño geiago. Fukushima´n 160.000 notin toki aldatuak izan dira ta erreaktoretatik 20 Km. Biurtu inguruan baztertu gune bat da. Alan be, oraintsu egunkarietan irakurri dogun legez, 367 notin baztertuko gunera biurtu dira. Fukushima uria, Fukushime´ko prefektura uriburua, nuklear-etxetik 60 kilometrotara dago.

Ludiko jaurlariak ez dira zentzatu Chernobil eta Fukushima´z eta erreaktore nuklearrak eregiten jarraitzen dabe. Ludian 443 erreaktore nuklear erabilketan dagoz eta 69 eregiten. China 29´z eta Rusia 11´z errialdeak dira geiago eregiten dagozenak.

Errialde artean erreaktore barriak eregiten dagozenak Ucrania (2) ta Japón (beste 2) dira. !!! Guzurra dirudi Chernobil eta Fukushima´ko ondamendietako ikusita ta gero!!! Ta ez da itsu aundiagorik ikusi gura ez dauenak baño. Ta gizona abere ba-

karra da, topo egiten dauana birritan arri berean. Askorentarra iñozoen pozgarria. Erabilten diran atomika-etxeak 31 errialdetan dagoz eta, euren artean, 15, erreaktore nuklear geiago eregiten jarraitzen dabe. Bai ta egitasmo batzuk dagoz beste errialde barri batzuetan.

Ludi bat guztiz nuklearragaz ludiko amaia etorriko da nuklear zioz

eta ondorioz: Ludiko amaia ta Gizadikoa.Zati bat zoroa biurtu dalako.

Nik lenago niñoanez, Lemoniz´en erreaktore nuklear bietakoa erabilten ez ipintea, Euskal Erri´ko garaipen-mugarri bat eta Gizadirako adibide bat izan zala.

Baiña mamua, izugarrikeria, or jarraitzen dau amaitu ta eraitsi barik. ¿Nork diñosku urte, edo amarraldi batzu barruan, ezin eroan dabela Uranioa errekiñara ta ezarri dagiela erabilten? Urtenbide bakar ziurra dana eraistea da. Izan daitela barriro toki izadikoa, len zan legez Basorda´ko itsasartea.

Ganera bertan daukagu euskal lurraldeko mugan, Garoña´n (Burgos), Araba´tik 4 Km.etara, erreaktore nuklear bat, orain geldi dagona; baiña Nuklenor´ko enpresa jabeak, PP Jaurlaritzaz babestua, ezarri gura da barriro erabilketan. Egia da erreaktore au Lemoniz´ko bietako (930 Mw.o bakotxa) baño askoz txikerragoa dala (466 Mw.o). Garoña´koa sartu zan erabilketaz 1971´garrenean eta ordutik ondakin erradiaktiboz kopuru eskerga bat -eta zeaztu barik sortu da. Urte geiago erabilten ba´da -bere erabilketa luzatu 60 urte arte gura dabe- ainbeste ondakin erradiaktibo sortu izango da, bere eraistea oso gatxa izango dala, eziña ez esategaitik. Orain eraitea asi bear dana, bere eraistea edo desegitea amarraldiak eroan daitez arren.

Bestela, etorkizun mendetarako obi erradiaktibo bat mendi bat geratuko da, ormigoi altzairudunaz estalduta, irrada kanpora ez, urteteko,

Guda batean, arerioagaz bide azkarraz amaitzeko, ezer erasoatea lakoa da erreaktore nuklear bat. Orrela etorkizuneko gudak izango dira. ¿Ta zer jazoko zan Garoña ez pa´da eraisten eta etorkizun mendetako gudal burukote batek arituko ba´leu elburua jaurtitze obi erradiaktibo orretara?

Erradiaktibitate itxita bere erraietan kanpora urtengo leuke eta Euskal Erri´ko alde aundi bat kutsatuta geratu leike ezin-bizizko mendeetarako

Eta ni frankista ez izan arren, Francisco Franco´ri zuzena emon bear dautsot, esan ebanean a "naziño bateko bizitza mendeakaz neurtuten dala".

Nuklearraren alde makurtutea zorakeri bat da. Onenean be, kilowatio kopuru itzela, amarraldi batzuetan ipotekaturik betirako erradiaktiboaz.

Ori adierazten dau Garoñak Euskal Errirako.

(Eta bitartean Lemoniz ez daitela eraitsi. Ez da ezer ziurrik)

1936´ko GERRAREN ONDORENGO GOSETEA

1

Gauz ederra zan errotatikan
ekartzen gendun iriña,
garia eta artoa txetua
arri artean egiña;
etxerako ogia ta taloa,
ori zan gauza ,iakiña,
kaletarraren bizimodua
ez gendun orren berdiña.

2

Bizitutako gauzak asi naiz
emen bertsoz itzegiten,
ikusi gabe ez da erreza
bear bezela jakiten;
basarrin bazan animali bat
da etzuan utsegiten,
orduko astoak errotarako
bidea ondo zekiten.

3

Kale aldean etzan txantxarik,
janaritik eskaxia,
jatekoa saldu edo erosi
zegoan galerazia;
biziko bazan lapurreta zan
jende askoren grazia,
ori izan zan gerra santuak
sortu zun irabazia.

4

Goseak berriz berekin ditu
malkoak eta negarrak,
buruausterik aundiñak zitun
gosea kendu bearrak;
aur askorentzat esnerikan ez
legortutako bularrak,
inbiri pranko ematen gendun
orduko basarritarrak.

5

Neguero bazan txerri gizen bat
ikuillu baztarren baten,
ura iltzean zer pesta gendun
ez da erreza esaten;
umean gozamena bere puskak
auzotara eramaten,
orduko urdaiak kolesterolik
ere etzuten izaten.

6

Gobiernoak illero ematen
zun janari errazioa,
illan erdia iristerako
bukatzen zan puntzioa;
kontrabandoko gauzetan berriz
urrearen prezioa,
eskerrak txerrikiak egiten zun
olion zerbizioa.

7

Ñola goardi ala salatari
bazan orduko bizitzan,
gure aita zana txekorra saldu:
lazo ortan erori zan;
norbere gauzaz ezin agindu
da mixeria ori zan,
Donostin munta pagatu zun da
triste asko etorri zan.

8

Gariak eltzen ziradenean
errotak ixten zituzten,
da guk gauetako ibillerak
orduan asten giñuzten;
errotak ere gaueko lanez
"traka" otsikan etzuten,
irabazteko aukerik emen
iñorrek ez baitu uzten.

9

Errotariak soldata zuan,
"laka" deitzen geniona,
euneko ainbesteko bat zan
zakuari kentzen ziona;
agian, gaueko lan orretan
etzan zuzen eta ona,
bai baizekian basarrietan
baskularik etzegona.

10

Lege zorrotzak egonagatik
gerra ondorengo bizitzan,
nekazariak sortzen zun dana
zuzen neurtu ezin zan;
badakit ez giñadela bizi
printzipe batzuen gisan,
legeak-lege basarrietan
goserik ez gendun izan.

11

Eguneroko buruaustea
pentsamentuz janarira,
tripa-zorriak nola kenduko
ertenikan atarira;
parienterik izan ezkero
azkar asko basarrira,
mantendu truke morroi-neskame
joandakoak badira.

12

Adiskidea etzazu uste
gezurrik esan dedanik,
arrokeriak umiltzen dira
ez baldin bada zer janik;
gerra batek zer ekarri zuan
ori ikusia daukat nik,
baiña ala ere ez du ematen
eskarmentatu geranik.

2014´ko Apirillean
Txomin Garmendia

Aurrerapenak

1

Aurrarapenan bidez
ainbat buruauste,
eta nere burura
bertsoak datozte;
onak diradenikan
etzazute uste,
baiña dozenatxo bat
jarri nai nituzke.

2

Aurrerapenak sortzen
da askoren lana,
arrigarrizko gauzak
datoz guregana;
esango det sarritan
esaten dedana:
"Pozik egon liteke
erotzen ez dana".

3

Modan jarri zaiguna
ordenadorea,
baldin ikasi ezkero
pitxi dotorea;
gure etxera ere
sartu dan lorea,
txuleta bat plateran
ez al da obea?

4

Ñola ordenadorea
ala interneta,
begiratzen badegu
alderdi daneta;
sartua izango da
etxe geieneta,
gure etxera ere
etorri da eta.

5

Orrelakorik gabe
biziak lenago,
orain bearrezkoa
ori omen dago;
askotan al dakigu
zer degun naiago?
Orain etxean degu
traste bat geiago.

6

Ortatik datoztela
nai ainbeste emaitz,
era berean diot,
baita ere milla gaita;
nere kasoa berriz,
ez da izango maiz,
larogei urte pasata
eskolan asi naiz.

7

Ume jaio nintzan da
ume biurtua,
esaera zarra beintzat
daukat ziartua;
emaitzik gabekoa
arbola zartua,
nere gaitzik txarrena
ezin ulertua.

8

Ume askori begira
egoten naiz noski,
teleponoz itzegiten
amarretik zazpi;
izketaldi luzeak
ez dituzte itz bi,
"segapotoa" berengan
duten ezkerozti.

9

Oso bearrezkoak
gaurko lanerako,
neurria komeni da
emen danerako;
aurrerapena izan
leike kalterako,
galera baldin bada
poltsikutarako.

10

Bildur aundirik gabe
nik esango nuke,
aurrerapenik ez dala
emen musu truke;
nola iñor ez geran
konde edo duke,
guraso askok ondo
aitortuko dute.

11

Maitasun arrigarria
teleponongana,
erri guztian bakarra
izan genduana:
orain pertson bakoitzak
poltsikuan bana,
ezin sinistuz nabil
ikusitzen dana.

12

Ezin leikela bizi
lenago bezela,
da askok diotenakin
arritzen naizela;
aurrerapen aundigoak
aurki datozela,
obetogo bizitzeko
izan ditezela.

2014´ko Apirillean
Txomin Garmendia

NABARNIZ

KOBA SAKRATUA

Kristo jaio baño lenago Nabarnizko basoetan zer ikusten dogu? Barandiaran abade jakintsuak gure erriko lur bazterretan aurkitutako koba bat: Ondaro da bere izena. Bere barruan Neolítiko eta Burdin Aroko gizaki kaska azurrak, eta illen omenez egindako oroigai bereziak azaldu ziran. Gaur egun gizon jakintsuen ikerketaren bidez jakin dakigu Ondaroko koba gure erriaren illerria izan zala.

Koba barrua areto leuna eta zabala da, eta baditu beste gune txiki batzuk. Egia esateko Nabarnizko eta inguruko ildakoak, millaka urteetan, koba sakratu ontan obiratuak izan ziran. Ondaro koba eta illerria gure asaba zarren ondare beneragarria da.

BIDEA ETA INGURUNEA

Ikazurieta auzoan, Onaindia eta Mane baserri artean, bertara joateko bidea artzen da eta Gorostiaga baserri aldera gurpidea jarraitu. Aurrerago ikusten da zurezko kartel bat: "Ondaro" Bide onen ondoan ikusiko doguz aintziñako sagardia eta sakonune batean karobi zarra tinko dagoena.

Ondaroko koba, baso-basoan, zugaitz ederren gerizpean, toki zoragarrian kokatuta dago. Baña zoritxarrez kobaren sarrera eta ingurua sasiarte eta sastraka artean oso abandonatuta dago. Ara joateko gidaria bear da.

Gerratean, frankistak sartu ziranean, Nabarnizko ainbat gizon, euren artean nire aita, emen izkutatu ziran arik eta arriskua eta bildurra uxatu arte.

Nabarniztarrai, meza santuan, erriko jaietan, argi ta garbi esan neutsen. "Illerria au gure asaba zarren ondare beneragarria da. Eta benetan merezí dau bere bidea obetu, ingurua eta sarrera garbitu, eta barrua atondu. Nabarniztarrak, danok bat egiñik, ekin dagigun ekintza goragarri ontan. Mesedez ez obiratu erriaren ondasun eder ori. Gure kultura eta turismorako onuragarri izango da"

Meza ostean abadeari, alkateari eta beste gizon jator batzuei emon neutsen idazki bat. Danak onartu eta erakutsi eben borondate ona.



Nabarnizko basoan
euskal illerria
Ondaro dau izena
txit arrigarria.
Gure asaba zarren
obi sakratua
opa deiogun danok
oroimen santua.

Zenon Uriguen

Gabon-Subiletan

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2013ko sari leiaketa. Irugarren saria

Beiñola, Arratia gaiñeko Dima parteko Lamindao auzunean alosoko etxagun bat bizi zan. Baserria Petralandako landa zautuan eukan, aldi baten akelarreak egiten ebezan landa ospetsuari deutsala.

Neguko solstizioaren aurretxuan, Dimoztar etxagun ori eta bere iloba subilarorako gabon-subiletan joan ziran Baltzola aldera San Juan egunean jaiotako idi parea buztarrian dala.

Baltzola eta Axlor kobazuloen ingurumarira eldu ziranean piperdi egiñaz atsedentxo bat artu eben Jentil-Zubi izenez ezagutzen dan berezko aitz-zubiaren eguzkibegian.

Orretara, iloba gazteloak beste batzuen artean auxe itaun au egin eutsan aitaitari:

-Aitaita, gaur zergaitik buztartu dozun baiño ez da San Juan egunean jaiotako idi pare au, obeak ere badituzu eta gortan!

-Badaezpada!,- erantzun eutsan aititak-.

-Zer ba?

-Zer ba, diñostazu? Ez dakizu ala? Ara, kontatu egingo deutsut bein parajeonetan zer gertatu ei jakien gure arbasoei.

"Au gure Lamindaoko eleiza au antziñakoa dogu eta nik neuk entzunda daukadanez, arazoak gertatu ei ziran egikeran.

Dimako Lamindaoztarrak asi ziran eleiza nagusi au egiten, Petralandako landari deutsala eta esaten ibili natxatzun lez, ba, kristauek egunez egiten ebezan arri-bearrak, gauez, baten batzuek lekuz aldatzen eutseezan.

Orrela ibili ei ziran luzaroan eta ezin eben gauza onik egin. Baltzolako jentilen susmoa eukien, jakiña, aiek ez ebeleko eleizarik gura.

Luzaroan ibili eta gero trebitu orretan, ebatzi bat artu eben Lamindaoztarrek, zein? eta gauean baten batek sorots egitea, ia nor edo nortzuk diran jakiteko gauetako zerok, lapur mantzinok.

Orrelaxe egin ei eben. Lamindaoztar bat arduratu zan gortako leioetariko batetik sorots egiten.

Gauero lez, jentilak agertu ziran Lamindaoko eleizako obrara eta kristauek egunez egiñeko guztia apurtu eta Jentil-zubi onen ingurumarira ekarri ei ebezan orma-arri eta gaiñetikook.

Baiña, sorosten egoanaren leiopetik pasatu ziranean jentilok, konturatu egin ziran eta maldizioa bota ei eutsoen esanez: "Orri, sorots egiten dagoan orri aurpegiko leioa itxiko baliako (balitzakio)".

Eta urrengo egunean, a sorosten egoana begi bat galduta agertu ei zan, tuerto, eta areixek jentilak izango ziran, nor osterantzean?

Lamindaoztarrek ori ikusi ebenean, argudioz, kurutze bat jarri eben eleiza barria egiten egozan tokian eta orrelaxe lortu ei eben gauezko jentilok uxatu eta eleiza ederra egitea".

-Ez da izango egia, aitaita?- esan eutsan ikaratuta ilobak.

Ara ilobatxo maitea, egia ala guzurra ez dakit baina entzun alaxe daukat entzunda eta nik neuk, badaezpada, kristauaroan bertan ere Gabon-subila San Juan egunean jaiotako idi pareagaz eroaten dot. Gaur egun ere, onek Jentil-Zubi onek gorputzean pipiladurea ateraten deust, zer dan orregatiño bildursartua e?

-Aitaita, lasaitu zaitez, -esan eutsan ilobak siñisgaitz iterantzunak aotik askatuz-, orreik siñiskerok antzinako kontuak baiño ez dozuz eta. Emen ez dago jentilik ez jentilondokorik!

-Ezetz? Badiranik ez ei da siñistu bear baina ez diranik ere ez ei da esan bear gero! Aditu ondo Jentil-Zubi onen esaunda, niri neuri aita defuntuak kontatua:

" Beiñola, Baltzolako kobazuloan bizi ei ziran jentilak eta indartsuak ziranez aitzean bertan asi ei ziren zubiginen, gaur egun berezkoa dala esaten dogun au berberau, baiña ezin ei eben amaitu euren zubigintza Lamindaoko eleizako kanpaia entzun ei ebelako. Kristauaroko kanpaiotsak podere barik itxi eta uxatu egin ei ebazan jentilok Baltzolako Jentil-Zubi au guztiz egin-akabatu barik geratu zalarik. Egia edo guzurra, zeozer izango da, emen daukagu eta"!

Tira, atseden eta kontuok kontatu ondoren euren bearrari ekin eutsoen aitaita-ilobok.

Urte orretako Gabon-subiletarako aitaitak aurrezdik begiztatuta eukan inizituak edo errekatxak jotako aritz erdi igartu bat eta orrela ez eukan aritz garrazta sendo eta zindo bat ipurditik bota bearrik.

Trontza artu eta aitaita-ilobok biak bietara zirrin-zarran bota eben aritz erdi sikatu ori. Erramak kendu eta gero ipurdi aldetik arandela eta guztizko burdina-ziri luze bat sartu eutsoen artarako mailu bereziaz lagunduta. Gero, idi parearen buztarriko burtederik arako katea sartu ziriaren arandelatik eta narraz eroan eben Lamindaora bidean aitaita aurretik eta iloba atzerik ara zirala.

Etxera bidea ez zan luzea baiña garai orretako gauak bereala etorten diranez, ia-ia gautu egin jakien eta Petralandako landapetik joiazala, berbarots berezi bat entzun eben, zer? eta auxe:

"Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzaaaaaaat"!

Aitaitak, bere ilobari eskutik oratuta badiotso ba ze:

-Zer Jaungoiko ete gagoz entzuten? Gure arbasoen garaian ba ei egozan jentilak edo parte txarrekoak, baiña orain, kristauaroan zer dan baiño ez da berbarots au? Gaueko arimak ez badira gero? Eta birritan pentsatu barik badiño aitaitak, eta idartsu esan ere:

-"Nortzuk zareen beist, ez zaiteze urreratu estadio pare batetik onago. Zer ofrezitzen jatzuen jakin daiteke?

-Ez bildurtu, gu gaueko arimak gara eta emen gabilz zeruan sartu ezinik arik eta bizitzako ondo egin ezak betatu arte!

-Oño! Eta zer itxi dozue ba bete barik?-iñoan aitaitak-.

-Ba ara! Gu andra-gizonak gara, bigarren ezkontzakoak, alargundu egin giñan bakoitzak iruna seme-alaba geunkazala eta gero bigarrenez ezkondu eta beste lau orpogorri izan doguz, alosoko etxekada. Gosea ez baiña ez-edukia ugari ikusi dogu bizitzan, batzuetan senperrak sufritu ere bai eta aurreratzen joan garan diru apurra gorde egiten izan dugu estariko abe-zulo baten badaezpada baterako. Eta zoritxarreko egun baten, perretxikotan joan giñan orra goietako pagadira eta onak zirala-kotan jan eta akordatzakoan il ez giñan egin ba? Eta, jakiña, aurreratutako diruak, amaseiko gorriak zeatzago esanda, seme-alabei non gordetzen genduzan esan barik il ginanez, ezin gara sartu zeruan. Dirua ezlekuan dago, errotaren andapara ondoko aritzezko zutabean, ukabilez ta-ta-ta egiñez gero arro-otsa barruntatzen dan lekuan. Mesedez diruok non gorde genduzan parte emongo bazeuntsee gure seme-alaba errukarriei!



-Obeto ez!- erantzun eben aitaita-ilobak biak batera-, biarrera itxaron barik, gabon-subil au etxera eroanagaz batera egingo jatzue gurari ori. Baiña zein etxaguntzatara joan bear dogu?

Ba, aiko, gu urlia eta urlia gaituzue eta Gorbeiara doan mandabide eta laminerreka deritzon erreka ertzeko errotan bizi giñan eta an ibiliko jatzuez gure umezurtzak aalak egiten bizimodua aurrera eroateko. Mesede ori egiten badeuskuzue barriro agertuko gatxatzuez eskerrak emoteko, ementxe, Lamindaoko eleizportikuan Gabon gaueko meza ostean inork ikusi ez gaigizan.

Entzun eta egin. Aitaita-ilobok, idiak aidatu eta zuzian eldu ziran euren etxaguntzara. Idiok buztarritik askatu, Gabon-subila itaxurepeko legorrean ipiñi, soiñekoz aldatu, artu mando gorri bana eta tipi-tapa abiatu ziran euren zeregin misteriotsura iñori berberdi ere esan barik.

Errota aretara eldu eta ateak jo ebezanean, ikaratu egin ziren errotari gazteok eta:

-Nor da?- galdetu eban semerik zaarrenak-.

-Geu gara, bakez gatoz eta zabaldu ateak bildur barik!

Ateak zabaldu eutsezan eta fetura onean etozala ikustean barrura sartzeko eskatu eutsen. Orretara aitaitak esan eutsan ba ze:

-Ara, gazte, onantxe eta onantxe eta auxe eta auxe gertatu jaku Petralandako landapetik gentozala.

-Egia ez da izango?- erantzun eutsen errotari zaarrenak-, goazen ia ezleku ori ikustera.

Joan ziran eta efetibamente, arro-otsa barruntatu eben parteko ool zati biribila kendu ebenean, ene! antxe egozan diruok, alosoko piloa egon ere, amaseiko gorriak, urrezuri edo zilarrezko ogerlekoak eta gaiñetikoak.

Tristuraren barruan poza agertu jakien errotako umezurtz guztiei eta esker ona adierazteko urun zorro bi oparitu eutseezan, bata gari-urunezkoa, ogi, pamitxa, ai eta abarretarako eta bestea arto-urunezkoa, arto, opil, talo, morokil eta gaiñetikoetarako Aitaita-ilobok, etxera bueltatu ziran euren mandogorri gaiñean urun zorro eta guzti, eta isilean gorde eben euren aronako berezia, zein jendea adi itxi.



Andik iru egunera Gabon eguna eldu zan eta oitura zan legez, Gabon-subila prestatu eban aitaitak, Baltzolatik ekarritako aritzaren zatirik egokiena aukeratuz.

Gabon Gaueko afari aurretxuan, aitaitak, supazterrera eroan eban Gabon-subila, aitearen egin, zati bat ebagi aizkoraz eta artegi edo gortako orma-zuloan gorde eban etxea eta ganaduak zaintzeko. Gero Gabon-subila Gabon-zuzi egin aala, bere ikatz edo iduri apur bat ganbarako abe zuloan gorde eban etxea erre ez egiteko erremedio gisa.

Bajoian joan Gabon afaria aurrera baiña gure aitaita urduri baegoan, iloba artegago, estu eta larri, ia-ia kakadario, gerokoari begira eta orretara esan eutsan aitaitak:

-Nasai egon adi, Gabon Gaueko oilar-meza ostean ni neu konponduko nok arimokaz, abadeagaz berbatuta niagok eta.

Alaxe egin eban. Meza aurretik abadearen aolkuak entzun, Lamindaoko eleizako Gauerdiko meza entzun eta auzokideak etxeratu ziranean, bera eleizportikuan geratu zan abadea ere zain eukalarik badaezpada ur bedeinkatu eta guzti.

Isiltasun eta iluntasun aretan atibo agertu ziran andra-gizon arimok eta:

-Eta zer? Egin deuskuzu mesede ori?

-Bai orixe, eta gaiñeko poza zabaldu zuenean!

-Tira ba, orain bai, orain bai, orain sartu geintekez zeruan. Eutsiz gure esku-bostekoak!

Aitaitak, abadeak esanda ekienez, esku biak luzatu eutsezan, bata batari eta bestea besteari baiña Gabon gauean irun eta eundutako lino-zapi bat esku banatan dala. Abadeak berak ere , " In nomine Patris..." bedeinkatu egin ebazan eta zerurako bidea artu eben.

Natibete goizean, aitaitak bere ilobari dana kontatu eta lino zapiak erakutsi eutsazanean, zer? eta ene! zapiotan bost atzamarren erre-markak ez zirenba agertu? Egia edo guzurra, kontatu orixe egiten da. Siñistu nork? Batek badaki!

EUSKITZ

Juan Manuel Etxebarria

Euskaldun barrientzat

ikasten

Zazpi utsak

Sudoku

3		7		6	9			8
	5		3					4
	9		2				5	
7							3	
		2	9		3	1		
	3							5
	2				5		8	
8					1		7	
9			6	3		4		

3	4	7	5	6	9	2	1	8
2	5	8	3	1	7	6	9	4
1	9	6	2	8	4	7	5	3
7	1	4	8	5	6	9	3	2
5	8	2	9	4	3	1	6	7
6	3	9	1	7	2	8	4	5
4	2	1	7	9	5	3	8	6
8	6	3	4	2	1	5	7	9
9	7	5	6	3	8	4	2	1

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar .....

..... kalean (auzoan.....zenbakian

.....errian, ...errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko .....diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□□□ zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Euskerazaleak. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao.

ASI TALATIK ETA

Asi talatik eta
portalera-año
ez dago besterikan
tabernia baño,
nor ez da mozkortuko
ainbat tabernakin
baitta islako akerrak
edaten baleki.

Itsasotikan gatozenian
arrain barik etxera
andra zantarrak bialtzen gaitu
afaldu barik oera
oian sartu ta popia emon
au da betiko kontua
olako andrakin ezkontzen dana
ez da makala tontua

lekeitioko portua